

DURANGO 8M ABESTI FEMINISTEN LEHIAKETAREN OINARRIAK 2019

Lehiaketa honen antolatzailea Berdintasun Arloa da. Lehiaketak musika **adierazpen** eta **sormen feminista** sarituko ditu.

Zer hartzen dugu abesti feministatzat?

Emakumeak edota beraien eskubideak ardatz duten lanak izango dira. Emakume eta gizonen berdintasuna irudikatu eta erretratatzeko dituzten abestiak bilatzen ditugu; genero aniztasuna ospatzen dutenak, desberdintasunak azalaratzen dituztenak; maitasuna jabekuntzatik ulertzen dutenak; genero estereotipoak sahiesten dituztenak, emakume ahaldunduak erakusten dituztenak; historian, emakumeen protagonismoa erreklamatzeko dituztenak, emakumeen arteko laguntza, adiskidetasuna, ahizpatasuna goraipatzen dituzten abestiak bilatzen ditugu.

1. Sariak

- Bakarlaria, jatorrizko abesti onenarentzako saria: 600€
- Taldeka, jatorrizko abesti onenarentzako saria: 600€
- Bakarlaria – Bertsio onenarentzako saria: 500€
- Taldeka – Bertsio onenarentzako saria: 500€
- Eta publikoaren saria abesti onenari: 500€
- Publikoak emandako saria: 500€

Martxoaren 1etik eta martxoaren 9ko 19:00ak arte, publikoak abestirik gogokoena aurkezteko aukera izango du Berdintasun Arloko facebook-en bitartez: Durango Berdintasuna; Andragunea Emakumeon Topagunea;

- 150€-ko aipamen berezi finalista guztientzat.

• Sarituak Andra Mariako elizpean arituko dira martxoaren 9ean. Talde/bakarlari bakoitzak gutxienez 2 kantu aurkeztu ahalko ditu.

2. Abesti Feministen Lehiaketaren faseak

Aukeraketa fasea

• Izen-ematea, grabazio musikalak eta letrak aurkeztea, **otsailaren 23ra** arte. Non: Andragunean, Lariz Dorre 2, edo hurrengo posta elektronikoa: m8lehaiketa@gmail.com

• Aukeraketa fasearen emaitzak: **martxoaren 1ean**. Gehienez 10 talde/abeslari aukeratuko dira azken sailkapen fasera igarotzeko.

Azken sailkapen fasea, kontzertua-lehiaketa

• Aukeraturiko talde/bakarlari kontzertu-lehiaketa batean arituko dira, sarietako bat eskuratzeko.

• **Non:** Andra Mariako elizpean.

• **Eguna eta ordua:** martxoaren 9an, 19:00etan.

3. Bakarlarien kategorian pertsona bakarraren edo bikoteen ikuskizunak sartuko dira; taldeen kategorian, berriz, hiru pertsona edo gehiagoren ikuskizunak.

Talde edo bakarlari parte-hartzaile bakoitzak bere abestiak edo bertsionatutako abestiak euskaraz/gaztelaniaz/ingeles/frantsesez/ aurkeztu ahalko ditu, musika estiloa edozein izanda ere.

Abestien modalitatean aurkezten direnek abestia musika tresna batekin edo gehiagorekin lagundu dezakete, *a capella* abestu dezakete, edo oinarri instrumental bat erabili. (karaoke mp3)

Finalean oinarri instrumentala erabiltzeko asmoa izanez gero, izena ematerakoan audioa mp3 formatuan entregatu beharko da.

Bideoak formatu hauetan bidali ahalko dira: .mp4, .mpg edo .mov.

4. Parte-hartzaileak 12 urtetik 20era bitartekoak izan beharko dira (biak barne). Kide durangarrak dituzten taldeek edo bakarlariak lehentasuna izango dute aukeraketarako, bai eta berdinketa teknikoak hausteko ere.

5. Taldeek adierazpen sortzaile eta musikalaren bitartez parte hartuko dute, eta ez dira onartuko sexua, adina, erlijioa, edo nazionalitate politikoa errespetatzen ez duten letrak. Era berean, ez da zilegi izango ageri-ageriko eduki lizun eta/edo bortizik duen abestirik aurkeztea.

6. Izena ematearekin batera, informazio hau eman beharko da:

- Izen-emate orria (kideen izenak, ezaugarri teknikoak eta muntaketaren ezaugarriak (l. Eranskina).

- Parte-hartzaile guztien NANaren fotokopia.

- Aukeraturiko abestiaren edo abestien grabazioa; era berean, lehiaketan aurkeztuko diren abestien jatorrizko letrak idatzirik.

Beharrezkoa den dokumentazio guztia aurkezten ez duen taldea/bakarlaria inskripziotik kanpo geratuko da.

7. Lehiaketaren edozein emanalditan, sailkapen fasean, lehiaketan parte hartzen duen talde/bakarlari bakoitzak gehienez ere 2 abesti aurkeztu ahalko ditu, bakoitza 10 minutukoa gehienez; denbora hori gainditzen bada, taldea/abeslaria lehiaketatik kanpo geldituko da.

8. Sailkapen prozesuan, antolatzaileek ez diete baliabide teknikorik emango talde eta bakarlariari. Martxoaren 9eko azken kontzerturako, bai, antolatzaileak arduratuko dira tokia eta soinu-teknikaria jartzeaz. Horregatik izen-emate fitxarekin batera, abeslari/talde bakoitzak dituen beharizanak zehaztu beharko dira, baita erabiliko diren musika tresnak eta ahotserako beharko diren mikroak ere.

9. Epaimahai bakar bat osatuko da Abesti Feminista Lehiaketako fase bakoitzerako. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Epaimahaiak 3 talde finalisten kontzertua bukatu ondoren jakinaraziko du finalari buruzko erabakia. Hauek izango dira epaimahaikideak:

- Berdintasun teknikari bat.
- Berdintasun Kontseiluko 3/ Mugimendu feministako 3ordezkari.
- Musika arloan eskarmentua duen pertsona bat.

Epaimahaikide guztiak edo batzuk joango dira faseetara, fase bakoitzaren eskakizunen arabera.

10. Durangoko Udalaren esku geldituko da aurkezten den dokumentazio guztia, bai eta maketa musikalak, argazkiak, eta bestelakoak ere. Dena dela, talde eta bakarlariek dituzten egile eta irudi eskubideak errespetatuko dira.

11. Talde parte-hartzailearen batean adingabekorik bada, adingabearen eskubideak bermatuko dira, Adingabearen Babes Juridikoa arautzen duen urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak eta Kode Zibilak ezarritakoaren arabera.

12. Berdintasun Arloak antolatzen dituen jardueretan argazkiak eta grabazioak egin daitezke, betiere Durangoko Udalaren komunikabideetan udal jardueren informazioa emateko. Lehiaketako irudiak hartzerakoan aintzat hartuko da Adingabeen Babes Juridikorako Lege Organikoaren 4.3 artikulua (intromisio ez-zilegikotzat jotzen du adingabeen irudia edo izena komunikabideetan erabiltzea, hala haien ohorean edo izen onean inpliketzen bada, nola haien interesen kontrakoa bada).

13. Lehiaketan izena emateak berekin dakar Durangoko Udalari zabalkunde, banaketa, grabazio eta erreproduziorako eskubide guztiak lagatzea; hala ere, Abesti Feminista Lehiaketari dagozkion kontuetan baino ez ditu erabiliko.

14. Lehiaketako edozein fase bertan behera utz liteke, antolatzaileekin zerikusia ez duten arrazoiek eraginda, baina horrek ez du inolako konpromisorik edo konpentsaziorik eragingo parte-hartzaileekiko.

15. Sarietan zehazturiko zenbatekoei zerga-atxikipena aplikatuko zaie, indarrean dagoen legeriarekin bat.

16. Lehiaketan arituko direnek ez dute katxetik kobratuko faseetan parte hartzeagatik.

ESKABIDEAREKIN BATERA DOAN DOKUMENTAZIOA:

*Izen-emate orria (l. Eranskina)

*Taldekide guztien NANaren kopiak.

*Taldearen grabazio musikala; gehienez ere 3 gai, eta letrak idatzita.

I. ERANSKINA

Nik (bakarlari edo taldearen ordezkariaren izen-abizenak)

_____k

Abesti Feministen Lehiaketan izena emateko eskatzen dut, talde parte-hartzaile gisa aritzeko.

Taldearen/bakarlariaren izenean:

Harremanetarako pertsona:	Udalerria:
Harremanetarako orduak:	Probintzia:
Telefonoa:	Telefonoa: 2
E-maila:	

Taldekideen izenak:

-
-
-
-
-
-
-

Muntaketaren ezaugarri teknikoak

II. ERANSKINA

Adingabeen parte-hartzea baimentzeko.

BAIMENA. *Amak, aitak edo legezko tutoreak eranskin honen kopia bat sinatu beharko du)*

NI NAIZ
NIRE NANa..... DA,
ETA.....

ADINGABEAREN AMA/AITA/LEGEZKO TUTOREA NAIZ.

ADITZERA EMATEN DUT IRAKURRI DITUDALA DURANGO 2018 ABESTI FEMINISTEN LEHIAKETAREN OINARRIAK ETA BAT NATORRELA BERTAN AZALDUTAKO ATAL GUZTIEKIN.

ETA JASOTA GERA DADIN, SINATZEN DUT:

Durangon, 2019ko aren (e)an.